

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Patxi Goikolea Zabala

*Arrasate
Gipuzkoa (1933)*

Aurkibidea



Biografia



Arrasaten kalean jaioa. Gerran, 4 urte zituela, aita espetxeratu egin zuten, eta amandrearen baserrira joan zen familia guztiarekin batera (Goroetara, Aretxabaleta). Baserrian bizi izan zen 21 urte izan zituen arte. Kalera ezkondu zen. Industrian lan egindakoa, kultur eragile handia izan da Arrasaten, batez ere bertsogintzan (Euskal Herriko lehen bertso eskolaren sortzaileetako bat), baina AEDren barruan ere lan handia egindakoa da. Hainbat proiektutarako jaso dira bere testigantzak; elkarrizketetako bat Esther Goikolea arrebarekin egin zioten, Arrasateko hitanoari buruz.

Zintak

ARR-006

- **Proiektua:** Arrasateko haur kantak eta jolasak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Garro, Eneritz - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2005-01-27
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Sarasua Aranberri, Asier
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

ARR-010

- **Proiektua:** Euskal Herriko txori eta animaliak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2005-03-05
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Emalea:** Sarasua Aranberri, Asier

ARR-029

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Garro, Eneritz
- **Data:** 1996-01-01
- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

ARR-130

- **Proiektua:** Arrasate Press
- **Elkarrizketatzailea(k):** Garai, Jesus Mari - Plazaola Otadui, Estepan
- **Data:**
- **Iraupena:** 42 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Garai, Jesus Mari

ARR-197

- **Proiektua:** Arrasaten hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2024-05-03
- **Iraupena:** 105 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Araba eta Gipuzkoa bitarteko mugan estraperloa

- **Erref:** ARR-006/003
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:01:18. **Bukatu:** 00:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Arrasaten jaio zen. Lau urte zituela, gerra hasi, eta alde egin behar izan zuten. Lehenengo "Cuatrovientos"era joan ziren, Aramaio aldeko baserri batera. Bertan estraperloa egiten zen. Arrasateko jende asko joaten zen bertara, Arabara, ardo bila, zergarik ez ordaintzeko.

Transkripzioa

-Ta, lau urte nittuela, ba, gerrie etorri zan, eta, gerrie etorri zanien, ba, hamendik alde ein biher izen geuen. Juan giñen Bilbora. Bueno, jua... igix, igixi Bilbora. Bueno, lehenengo jua giñen hemendik "Cuatrovientos"era. Nik "Cuatrovientos"... ez dakit jakingo dozun /jakingozun/ nun dan. Hori dago Gesalibar eta Aramaixo bittartien, baiñe goixen, mendixen dau. Eta hori basarri hori zan e, denpora baten, ba, izatez Aramaixo partia, Araba. Eta han tabernie eukien, ta han estraperlue eitten zan, denpora baten. Ta estraperlue eitten zan, ba, Arabatik Gipuzkuara, han kamiñuan euen e, esaten jakona kataia, esaten jakona. Ta han ordaintzen zan zer bat, diru bat, ardaue-ta ekartzen eutsienai, kentzen utsien, ba, ez dakit zela deiketan utsien be... izen bat berezixe euen. Bueno, ba, han ordaintzen zan. Ta handik pasetan juen. Baiña ha ez ordaintzearren, ba, zer eitten auen? Ba gure aittejauna zanak, "Cuatroviento"ra, ba han tabernia aukan, ta han eukitten auen ardaua. Ta hemendik, bai Santa Ageda aldetik, Garagartza, ta horko jentia, juaten zan euren garrafoiekin ta hara, ta han hartzen [euen] ardaua, ta ezer ordainddu barik, ba, pasetan zan hona. Ta hango anekdotak oso polittek die. Gure badozue /gurebozue/, holako bat be kontauko dutsuet /kontaukutzuet/ nik, e!

-Bai.

-Holako anekdota bat be. Ba, baten, hori, gure ama zanak kontaukua...

2. Estraperloa eta Mikeleteak Aramaio eta Arrasate bitartean

- **Erref:** ARR-006/004
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:06:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Cuatrovientos inguruan Mikeleteak egoten ziren, Araba-Gipuzkoa bitarteko muga zaintzen. Estraperlo kontuak ugari izan ziren. Bere aitik kontatzen zuen ipuin bat kontatzen du Patxik, Arrasatear batzuek nola sartu zieten ziria Mikeleteei.

3. Mikeleteek zaintzen zuten Araba eta Gipuzkoa arteko muga

- **Erref:** ARR-006/005
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:06:32. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Mikeleteek zaintzen zuten Araba eta Gipuzkoa arteko muga. Han katea bat zegoen, eta hantxe ordaindu behar izaten ziren zergak. Arrazola aldetik ere joaten ziren ardo bila. Arrazolar baten ipuina kontatzen du. Mikeleteak gerra denboran amaitu ziren.

4. Gerraostean etxea galdu eta amandrearen etxera Goroetara

- **Erref:** ARR-006/007
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:09:20. **Bukatu:** 00:11:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

<p>Gerraostean, Bilbotik Arrasatera itzultzean, etxea errexisatuta zuten. Amandrea Koruetakoa zen (Goroeta, Aretxabaleta), eta hara joan zen familia guztia bizi izatera. Aita kartzelan zegoen. Patxik 21 urte bete zituen arte Goroetan bizi izan zen.</p>

5. Goroeta eta Urkulu ingurua gerraostean

- **Erref:** ARR-006/008
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:11:40. **Bukatu:** 00:13:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Urkulu inguruko auzoen berri ematen du: Goroeta, Larrino, Aozaratza... Goroeta herri modukoa zen. Asko aldatu da. Sasoi hartan dena baserriak ziren. Labasua etxe guztietan, garia ereiten zen, trilkak egiten ziren...</p>

6. Gari-jotzeak eta larrainak

- **Erref:** ARR-006/009
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:13:40. **Bukatu:** 00:17:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Labasua etxe guztietan, garia ereiten zen, trilkak egiten ziren... Baserri guztietan ereiten zen garia, eta larrainak egoten ziren baserri atarietan, garia joteko lekuak. Bekorotzarekin "korotznaxe" egiten zen, eta horrekin garbitzen zen larraina. Bertan egiten ziren gari-jotzeak. Trilua erabiltzen zen horretarako. Umeek bekorotzak batzen ibiltzen ziren. Garia jotzeko makinak gerora etorri ziren, Patxik 15-16 urte zituela. Pare bat klase ezagutu zituen. Hori aurrerapen handia izan zen, makinak egiten zuelako lanik gehiena: lastoa, garia eta alkotza banatu, garia ganbarara bidali, eta abar.</p>

7. Goroetako eskola, maisu-etxea eta abadea

- **Erref:** ARR-006/010
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:17:20. **Bukatu:** 00:19:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Maistru-etxean bizi ziren. Goian bizi ziren, eta behean zegoen eskola, Goroeta auzoko eskola. Gerra aurretik maisua bizi zen bertan, baina erak ez zuen maisurik ezagutu; gerraostean abadea bera zen maisu lana egiten zuen, Don Boni. Kaskarreko ederrak ematen zituen, "e 'tzan iñor salbetan".</p>

8. 10 urtez egunero bizikleta hartu eta eskolara Arrasateraino

- **Erref:** ARR-006/011
- **Iraupena:** 0:05:35. **Hasi:** 00:19:10. **Bukatu:** 00:24:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

<p>11 urte zituela aitak bizikleta erosi zion, eta Arrasatera hasi zen jaisten eskolara, fraideetara. Goizean herrira jaitsi, osaba-izeben etxean bazkaldu, eta iluntzean Goroetara berriro. Udan ondo, baina neguan komeriak: euriak, hotzak, eta arropa gehiegirik ez. Etxera orduko iluna. Bideak ere ez ziren gaur egungoak; malda handia, harriz eta arantzaz betea. "Holan ikasten da bizitzen!". Horrela 10 urtean, 11 urte zituenetik, 21 urte bete arte. "Larre motxian hazikuak!".</p>

9. Txikitatik astoa hartu eta Arrasatera sagarrak saltzera

- **Erref:** ARR-006/012
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:24:45. **Bukatu:** 00:25:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Goroetako maisu-etxean bizi ziren. Sagarrak zituzten, eta Arrasaten saltzen zituzten. Astoa hartu eta herrira sagarrak saltzera.

10. Oporretan baserrira

- **Erref:** ARR-006/013
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:25:45. **Bukatu:** 00:27:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Udan 3-4 hilabete ez zen eskolarik egoten, eta "oporretan" amaren baserrira joaten zen, "Cuatrovientos"era, Aramaiora. Munduko parajerik onena zen beretzat hori. Osabekin jolasean, eta baserriko lanetan...

11. Igandeetan familia guztia elkartzan zen baserrian, eta jai handiak egiten zituzten

- **Erref:** ARR-006/014
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:27:00. **Bukatu:** 00:28:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Amandrea oso bertsozalea zen. Txirrita, Pedro Mari Otaño, Bilintx.. Denetik zekien, eta berekin hartu zuen bertsozaletasuna Patxik. Igandetan familia guztia elkartzan zen baserrian, osaba-izeba guztiak, eta sekulako jaiak izaten ziren beraienean.</p>

12. Kalabazaren eta mandoaren ipuina

- **Erref:** ARR-006/015
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:28:50. **Bukatu:** 00:31:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Aita oso ipuin-kontalaria zen. Batzuk berak asmatzen zituen. Kalabazaren eta Astoaren ipuina kontatzen du.</p>

Transkripzioa

- Ta hori. Ta amandriena... bueno! nik rekuerdo bat dauket oso ona amandriena be. Ta gero aitte ipuinkontalarixe. Hak asmetan zittuen ipuiñetan-ta. Ta adurra darixola egoten giñen gu haren ipuiñekin. Oso gaztaro politte. Ipuiñak? Ba, berak asmetan zittuen hak.

- Gogoratzen dozu, holan, ipuiñen bat?

- Bueno, ba, ipuiñek... ipuiñek, bai, gogoratu... batenbat igual gogoratuko naz ni... Ba, esaten oskuen bat, adibidez -bat kontetaarren, e-:

Juaten da gizon bat ferixara hamen Arrasatera -Arrasaten ferixia eitten zan ostiraletan ta-, juaten da gizon bat eta han egozan kalabaza haundi batzuk egozan ferixan. Batek saltzen eukien. Ta basarritar bat, han mendixen bizi zana, esaten otse: "Hi, horrek zer dittuk, ba?", "Horreik? Horreik, joe, horreik manduen arrautzak dittuk, moteil! Hik ez dakik, ala?". "Manduen arrautzak?", ta "Bai, bai, bai, manduen arrautzak". Ta "Bueno, ta horrek

ze?", "Hortik mandokumiek urteten jok". "Zela urtengo jok, ba, mandokumiek?", "Baietz, ba! Ein eik probia! Total, bost duro besterik ez jok balixo". Orduen bost duro diru asko ei zan. "Bueno, ba", erosten dau. "Hik hartu ta ipini otzarapeian eta hamendik hamabost egunero seguru mandokumiek urtengo dostana [...]". Bueno. Hartzen dau besapeien zeroi, kalabazioi, ta badoia etxerutza. Ta etxera [juaterakuan], baserrixan, izugarrizko aldatza ei eukan, ta eurixe eindda ta laban samar. Ta badoia aldatzian, bastante gora doiela, laban eitten dau gizonorrek, urteten dotso kalabaziorrek beso azpittik ta "Aiba!", han doie "tan-ta-tan", goittik behera, "tan-taun-taun"... "plausta!" Sasira. Sasixen erbixe lo. Urteten dau erbixorrek bere belarrixok tente dittula, hango ariñeketie! Ta "Eneee! Akabo nire mandokumie! Putx! Putx! Putx!" esaten otsen, baiña mandokumiek ihes in'tsan.

Holako kontuek-eta bai.

- Politta.

- Bueno...

- Eta honek berak asmutakuak ziran?

- Berak asmutakuek horrek. Eta beste... Zer esango dotsut? "Gaur ikusi dot txori bat, baiñe ze politte zan! Hurrengo hona etorten bada, harrapau bihar dot. Buru bi euken: bat hola begire ta bestie hola. Buru biko txorixe". Ta guk siñistu! Siñistu, baiña! Ta holako zelebrequerixak eta... Betik holakotxe zerbaitzuk esaten.

13. Umetan jolasean

- **Erref:** ARR-006/016
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:31:35. **Bukatu:** 00:32:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetan eskola gainean bizi zirenez, ume guztiak batera egoten ziren beti, Goroetako eliza aurrean. "Sakamantekaska" jokutzen zuten.

Transkripzioa

- Ta hori, Cuatroviento-ko kontuek, ba, hori, ba, gustora, gustora paseten geuen guk gazte-denporia. Ta gero beste gazte-denporioi, ba, Koruetan bertan. Orduen, ba, esan deusutena, han lagunekin, ba, Koruetako jolasak edo esaten badotsut, ba...

- Zein zan, holan, umetan, ba, 6-8 edo... Noiz hasten ziñazien lagun-artian ta...?

- Lagun-artien? Klaro, eskolie guk bertan geuken. Eskolie zela bertan geuken, han betik euan jolas zera, jolas-lekua. Eleixie ondo-onduen euen, eleixa onduen dau hori, maestro-etxie eleixa onduen euena, eta, ba, han elixa inguruan ta bueltaka-ta, ba, sakamantekaska-ta eitten gendun. Bat jartzen zan harrapatzaille ta gero harrapetan euen mutikue edo neskatiillie, ba, hartzen euen ta alkarri lotute, ba, ibiltten zien bestiek harrapetan. Eta hori zan, ba, "Sakamantekaska" edo esaten geuntsena.

14. Gaztetan dantzara Aretxabaletara, eta Garizuman txirikiletan

- **Erref:** ARR-006/017
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:32:40. **Bukatu:** 00:36:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Gazte denboran, igandetan, Aretxabaletara joaten ziren, dantzara. Baina Garizuman ez zen ezer egoten, ez musikarik, ez ezer. Eta Garizuman Txirikiletan egiten zuten. Txirikiletan zelan jokatzeko zen azaltzen du.

Transkripzioa

- Gero Garizuman, ba, txirikillatan eitten gendun. Txirikillatan jakingo dozu, ezta, zer dan?

- Ez, nik ez.

- Txirikillatan? Joño, ba, hori da Garizumako jolas bat. Garizuman orduen santu guztiek tapetan zien eleixan-ta be. Eta gero domeketan ez zan egoten soiñurik eta ezebe Aretxabaletan. Bestela gu Aretxabaletara jasten giñen, ya haunditxuauekj einddekuen, e! Bai. Hor, hamabost-hamasei urtekin hasten giñen aretxabaletara jeisten, ta han egoten zan, ba, musikie, bandie be bai, bandie be baeuan, ta gero gramolie. Gramolie esaten zana ipintten euen eta bestela, ba, zera, soiñua. Soiñue-joten zan. Eta holan, ba, Aretxabaletan fiesta politta eitten zan domeketan. Ta domeka aurretik edo domeketan zerian... Gu mutikotan-ta , ba, jolasoi izeten zan txirikillatan. Ta txirikillatan da Garizumako jolasa. Ta zer dan? Ba, esplikaiko dotsuet, gura badozue, zer dan. Izeten da holako... Txirikillie izeten da zotz bat; zotz bat, ba, makilla-punta bat moduan, holako luzerakua izengo da, eta puntatxo bana ataraten jakon han. Eta diametrua, ba, hogeta bost bat milimetro edo holako zer bat. Hau baiño sendotxuaua. Bai. Izeten zan holakua. Hori da txirikillia. Ta gero mazetia, beste makilla bat lodixagua, holako lodi bat eta holako luzera bat daukena, ha hartzen zan ta txirikillie botatzen zan gora ta jo eta ha juaten zan urrin. Eta gero, han eleix onduen geuken holako orma bat, eta han orman ipintten zan zer bat, makilla bat batetik bestera. Eta hari deketan jakon torria. Ta torre barrura sartu biher zan txirikillie. Orduan, torre ondolik hartu ta botaten zan txirikillia aidien. Eta hortarako eitten zan talde bat eitten zan. Ta taldiek eitten euen, jokaketan euen, ba, txokolatie edo bestela, ba, txokolaterik ez baeuen... Ya txokolatie haunditxuauek eraten euen, e! Baiña bestiek, gu ondio mutiko txikixek gitzela, izeten zan honrie. Ta [zera] eitten zan: ba, juntetan bagitzen hamar, ba, bost... Osea, bi [kontetan] zien, bik lehenengo: "Hi...". Batek bestien kontra ein biher euen, ezta? Bueno, ba, batek eitten euen bere ekipua, bost hartzen zittuen; ta bestiek beste bost. Ta ekipo batek bestien kontra eitten euen. Ta txirikillia horrek, txirikillia hartu ta torre ondolik hartu ta hola botaten zan, ta, ba, batzuk urrin botaten euen txirikillia. Batzuk arte ona eukien; beste batzuk, ba, ez hain urrin. Eta gero, ha botaten zan lekutik hartu ta eskuz harrike sartu biher zan han torre barruen. Hori zan jokua. Eta txirikillia hartu ta bota eta aidien hartzen baeuen --holan edo baitte txaketiekin-edo hartu zeikezun hola aidien--, orduan hamar punto eukan harek. Hamar punto. Ta, bestela,

torrian sartzen bazan, bost. Barrure. Ta bost, hamar, hamabost, hogei...
Ehun arte izeten zan. Ehunekin ya amaitzen zan. E? Aldiko bost kontetan
zien, baiña aidien hartzen euenak hamar punto euen. Ta holan izeten zan
jokue. Hori da txirikilletan. Eitten zan Garizuman.
- Garizuman bakarik...
- Garizuman bakarrik. Hori Garizumako jolasa zan.

15. Pote-poteka

- **Erref:** ARR-006/018
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:36:35. **Bukatu:** 00:37:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Pote-poteka ere asko jolasten zuten. Pote batekin jolasten zen. Ezkutaketa

Transkripzioa

- Eta beste jolasik ez zeuan garizuman?
- Ez. Bueno... Jolasak bai. Pote-poteka, ta... Pipar-potia hartu, ta han barruen sartu holako harri-koskor batzuk eta gero zertu, aplastau pixkat, ta harekin, ba, ipintzen zan holako punto bat. Borobil bat eitten zan ta haren gaiñien eitten zan potie ipintten zan. Ta gero, ba, guk gordelekue geunken han inguruan, ta gorde. Ta hortarako eitten zan, potia hartu ta han zentrotik harrika jaurti eitten zan. Ta juaten zan, toketan jakonai, topatzaillie-edo, ha juaten zan potie hartzen. Potie hartzen doien bittartien ta ha ekarri, bestiok gorde ein biher zien. E? Beste lagun danak gorde ein biher zien. Eta allegetan zan hara, ta gero, ba, bestie juaten zan topetan. Han ikusten euen ta "Joño! Pote-pote-pote, Joxe pote-pote". "Ta-ta-ta" jotzen zan ta ya esta, ta Joxek urten ein biher euen ta han egon, harrapauta, ba, sei edo zortzi edo hamar, danak topau arte. Danak topetan zienien akabaten auen. Eta lehenengo harrapau auena, ba, barriro toketan jakon harrike bota ta, ba, abar ta abar.

16. "Libiri ta labero, kaka ganauzaiñe" kanta

- **Erref:** ARR-006/022
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:40:15. **Bukatu:** 00:41:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kanta » Ume kanta
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Ume bat behizain zebilela, beste baten sorora alde egiten bazion, hauxe kantatzen zioten: "Libiri ta labero, kaka ganauzaiñe...".</p>

Transkripzioa

- Bai, bai, umetakuek. Ba, han ibiltten zan, ba, neskatilla-mutikuek beti ganau-zain ibiltten zien han. Auzo bateko, etxe bateko, gaunauek, ba, beste solora pasetan zien igual, ta zera, ta mutikuei orduen burla eitten

eutsien. Eta, orduan, ba, kantu bat, haxe dakit nik orduan kantetan zana han behintzat. Ganau-zaiñoi, han akordau barik dauela-edo, bestiekin distraiduta dauela igual, behixe juaten jakon, ba, bere terrenotik bestien solora igual, bestien arto-solora igual juaten zien behixok. Eta orduan kantau eitten otsien:

"Libiri tte labero,
kaka ganau-zaiñe
Uxarteko ganauek
artue gura aiñe"

17. Lua-lua txutxulunberde

- **Erref:** ARR-006/023
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:41:15. **Bukatu:** 00:42:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

"Lua-lua txutxulunberde" kanta.

Transkripzioa

- Ta besterik? Holan, lo-kantak eta...

- Bai, bai. Gure zerien , gure amak-eta kantetan zittuen. Bat zan: "Lua, lua, txuntxulun berde, lua, lua, masusta. Aita guria... Gasteizen dago" edo. A!
Bai: "Aita guria Gasteizen dago, ama manduan hartuta". Holako batzuk-eta bai.

18. "Atxia-motxia perolipan"

- **Erref:** ARR-006/024
- **Iraupena:** 0:00:18. **Hasi:** 00:42:12. **Bukatu:** 00:42:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

<p>"Atxia-motxia perolipan" kanta.</p>

Transkripzioa

- Ta beste bat be... Aber... "Atara... begixe"...Itxoin, e! Ez, ya juanda dauket burutik. "Ikusi nuen erbixe, atara nutsen begixe..." ...

- Hori "Atxia-mutxia" ezta?

-

"Atxia-motxia, pirulin pan,
gure semia errotan
errota txikiñek klin eta klan
botikario,
kalendario,
kosk ala pit?"

Hori bat.
- Hori eitten zan eskuekin...
- Bai, hori da, bai, bai, eskuekin. Eskuekin uste dot eitten zala, bai.

19. Tortoliska

- **Erref:** ARR-006/025
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:42:30. **Bukatu:** 00:44:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Nesken jolasa zen. Ondo azaltzen du nola jolasten zen. Mutilek ez zuten horrelakorik egiten.

Transkripzioa

- Gero, neskatiñak... Neskatiñan jolasa zan tortoliska. Tortolisak badakizu zer dien?
- Zelan?
- Die... Billotsan hankako hazur bat izeten da. E? Ta billotsan hankako hazurrek horrek dauke holako forma ezberdiña deko. Ta hartzen die dozena-erdi tortolis esaten dienak, eta pelotatxo bat. Eta lehelengo tortolisek forma bat deuko ta han forman... A! Lehelengo botaten die tortolesak, "rrra!" dozena-erdixek. Botaten die ta batzuk forma baten geraketan die, bestiek bestien, bestiek bestien. Bueno, ba, ein biher da: lehelengo, forma bateko posturan ipiñi, baiñe pelotie gora bota ta ha behera datorren bittartien, "tak!" erein biher dotsezu eta pelotia hartu aidien, pelotia jausi barik. Ta gero, ha forman ipintten dozunen, gora bota hartu eta pelotia hartu. Holan, alde bateko formako danak batzen zien. Gero bigarren formie. Ipiñi gora begire, esate baterako, gora begire danak. Ba, barriro botaten zan ta hari formai buelta emon. Ta danak forma... hara begire ipiñi, bakotxa hartuaz. Ta gero hurrenguen, holan, etzindde egon bada, ta gora begire ta behera begire, albora begire. Alde baten lisue euen, ta bestien potxolotxue. Ba, lehelengo gora begire ipiñi, ta gero bestaldera begire. Holan hartuaz jokue amaittu arte. Ta holan, ba, batzuk abilidada haundixa euen eskuetan hori eitteko. Beste batzuk, ba, gutxiao.
- Ta neskak bakarrik?
- Neskak eitten euen hori.

20. Kutxiloka

- **Erref:** ARR-006/026
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:44:25. **Bukatu:** 00:46:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>Mutilek "kutxiloka" egiten zuten, artzainen jolasa. Galtzen zuenak lurrean ondo sartutako ziri bat atera behar zuen ahoarekin.</p>

Transkripzioa

- Gero kutxilloka be bai, kutxiloka izeten zan. Jo, hori be bastante gogorra izeten zan, kutxilloka. Orduen, ba, artzai-eta dezente ibiltzen zien ta artzaiek beti eukitten euen kutxillotxue ta zera, ezta? Ta, orduen, artzaien jolasa dala uste dot nik, baiña behintzat kutxiloka guk eitten gendun. Izeten zan: kutxillua hartu eta holan ifiñi bekokixen, holan, ta buelta emun ta "tak" sartu ein biher zan lurrian kutxillue. Bai. Ta holan. Ta gero bestaldera igual. Barriro kutxillue hola hartzen zan ta atzerutza. "Tak" holan ein ta "tak" , sartu biher zan lurrian. Holan. Ta holan. Ta sartu edo ez sartu. Gehixen sartzen zittuenak, hak irabazi eitten euen. Ta gero ze eitten zan? Holako zotz txiki bat eitten zan kutxilluekin eta ha ipintten zan behien, bedar artien. Eitten zan okotsendako eta surrendako huekua ein eta han sartzen zan bittartien zotza. Eta zenbat eta gehixao irabazi batek, ba, orduen harek eukan deretxue golpiek emuteko hari zotzai. Ta sartzen euen lurrien. Ba, lehelengo, goittik holan hasten zan --zotza holako altu samarra--. Joten euen kutxilluakin "tak!" eta batzuetan jo-ta lurren barreneraiño. Ha atara ein biher zan gero. Ta ha atarateko zer? Surre eta ahuen huekuen hartu hagiñekin, ta lur ta guzti bokauan atara bihar kanpora. Hori zan beste joku bat.

21. Aretxabaletako tabernetan asko kantatzen zen

- **Erref:** ARR-006/028
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:47:20. **Bukatu:** 00:48:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak

Laburpena:

<p>Bere ustez, Goroeta inguruan gutxi kantatzen zen. Aretxabaletara jaisten hasi zenean, behin nagusiagoa zela, harritu egin zen Aretxabaletan asko abesten zelako. Euskal abestiak, eta abar. Tabernarik taberna.</p>

22. 'Mendaro Txirristaka': bertsopaperak banatzen zituen kolean

- **Erref:** ARR-006/030
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:49:00. **Bukatu:** 00:49:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Mendaro Txirristaka ezizeneko gizon bat etortzen zen batzuetan Aretxabaletara. Bertsopaperak banatzen zituen kolean.</p>

23. Txilin-txilin maiña

- **Erref:** ARR-006/033
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:56:55. **Bukatu:** 00:57:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Ume katak

Laburpena:

<p>Txilin-txilin maiñña, bixar Santa Maiñña, etzi Domu Santu, umia zuluaren sartu, aitta dolarez, ama negarez, herriko apaiza diruaren pozez / errialan pozez (azkenengo zatia ez dauka garbi)</p>

Transkripzioa

- Hau Salamanca-kua zan: "Txilin-txilin maiña, bixar Santa Maiña..."

- A! Bai!

Txilin-txilin maiña,
bixar Santa Maiña,
etzi Domu Santu,
umie zuluaren sartu,
aitta dolarez,
ama negarrez,
herriko apaiza diruaren pozez.

Edo holako zerbait. "...errielan pozez", "errielan pozez" (azkenengo zatia ez dauka garbi).

24. "Salamanca nindoalarik, bidean nuen pentsatu"

- **Erref:** ARR-006/034
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:57:35. **Bukatu:** 00:58:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak

Laburpena:

<p>"Salamanca" kanta ezaguna.</p>

Transkripzioa

- Eta gero honek jarraitzen dau: "Salamanca-ra baninddoala..."

- A, "bidean nuen pentsatu", hori?

Salamanca-ra nindoalarik,
bidean nuen pentsatu
estudiante tunante baiño
hobe nuela ezkondu.

Ezkondu ere ezkondu nintzan
baita ere ondo damutu
fraka beltzian hari txuria
sekulan ez zait faltatu.

25. Atzamarrekin egiteko jolasa

- **Erref:** ARR-006/035
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:58:10. **Bukatu:** 00:58:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>"Honek erosi, honek ekarri, honek ipini, honek apurtxo bat probau, eta honek dana jan".</p>

Transkripzioa

- Eta hau? Hau umetan egitten ostien niri atzamarrakin "Lehenengotxu hor, punta bihatz hori..."?
- Ez.
- Eta oilluena? Arautziena?
- Eta, ezta.
- "Honek txikitxuak..."
- A! "Honek erosi, honek ekarri, honek ipiñi, honek apurtxo bat probau ta honek dana jan".

26. Horra hor goiko hareztitxu baten

- **Erref:** ARR-006/037
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:59:10. **Bukatu:** 00:59:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

<p>Horra hor goiko hareztitxu baten, kukuak umiak egin dittu aurten. Kukuak egin amillotxak jan, hau ere kukuaren zoritxarra zan.</p>

Transkripzioa

- Eta hau? "Horra hor goiko..."
- "Horra hor goiko"... Hau ama zanak kantaten euen hau.

Horra hor goiko hareztitxu baten,
kukuak umiak egin ditu aurten.
Kukuak egin amillotxak jan,
hau ere kukuaren zoritxarra zan.

- Eta "Txibirrion ta txibirrion, errealdian hiru gizon"...?
- Ez.
- "...txinotia ta pakotia..."
- Ezta.

27. Txalo, txalo, txalopin txalo

- **Erref:** ARR-006/038
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:59:55. **Bukatu:** 01:00:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

<p>Txalo, txalo, txalopin txalo, katutxua mizpilla gaiñian dago, bidigarrua leixarrian, umiai ziriña bizkarrian.</p>

Transkripzioa

- Eta txalo pin txalo-kuak? Txalo eittekuak?
- Bai, "Txalopin txalo", entzunda zerbait bai, baiña...

Txalo, txalo, txalopin txalo,
katutxua mizpilla gaiñian dago,
bidigarrua leixarrian,
umiai ziriña bizkarrian.

- Edo "Pellori ziriña bizkarrian" edo bai, bai, izenak ipini ta...
- Eta "Hain urrin etxe pospola..."?
 - Ezta.

28. Urtebarri barri

- **Erref:** ARR-006/039
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 01:00:35. **Bukatu:** 01:01:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:

<p>Urte barri barri, daukanak ez daukanari, nik ez daukat eta niri, neri emuten ez dostena, txarri belarri.</p>

Transkripzioa

- Eta jaixetakuak? Gabonetan edo urte barri egunian edo...?
- Bai, jaixetakuek? Bueno, bai...
- Gabon egunian edo?
- Bai, gabon egunien-ta bai. "Urte barri" adibidez.

Urte barri barri,
daukanak ez daukanari,
nik ez daukat eta niri,
niri emuten ez dostena,
txarri belarri.

29. "Belengo portaleko ate zabaletan..." kanta

- **Erref:** ARR-006/041
- **Iraupena:** 0:00:13. **Hasi:** 01:01:32. **Bukatu:** 01:01:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:

<p>"Belengo portaleko ate zabaletan, Jesus laztana dago hotzak lastuetan".</p>

Transkripzioa

- Ta gero:

Belengo portaleko ate zabaletan,
Jesus laztana dago hotzak lastuetan (biz)

- Hori be bai. Hori... hamenguek die horrek, e!

30. Abere bakoitzaren "umeske" garaiko izena

- **Erref:** ARR-010/001
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Natura » Fauna

Laburpena:

Abere bakoitzaren "umeske" egoteari nola esaten zaion azaltzen du: susa, alta, arkeria, etab.

31. Umetatik txorietarako zaletasuna

- **Erref:** ARR-010/003
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:01:30. **Bukatu:** 00:05:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Natura » Fauna

Laburpena:

Umetatik sortu zitzaion txorienganako zaletasuna, aitonak haien inguruko istorioak kontatu ohi zizkion. 15 urterekin lehenengo txoria harrapatu eta kaiolan nola jarri zuen azaltzen du, "kardantxiloa".

32. Kardantxilo harrapaketa

- **Erref:** ARR-010/004
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:05:32. **Bukatu:** 00:08:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Arrasatera bizitzera joan zenean, kanario bat erosi zuen. Anekdotak bat aipatzen du. Udaberrian Bedoñako gainera joan eta kardantxiloak harrapatzen aritzen zen sarearekin.

33. "Zinbela", txoriak harrapatzeko tresna

- **Erref:** ARR-010/005
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:08:47. **Bukatu:** 00:10:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Kardantxiloekin erabiltzen den "zinbela" zer den azaltzen du.

34. "Larra-txoria"ren inguruko kontuak

- **Erref:** ARR-010/006
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:12:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

"Larra-txoria"rekin Muru mendian pasatakoa.

35. Alanbrezko kaiolak eskuz eginak

- **Erref:** ARR-010/007
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:12:16. **Bukatu:** 00:14:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Patxik berak egiten zituen alanbrez kaiolak. Harrapatutako txoriak kaiolan kanarioarekin jartzen zituen umeak ateratzeko.</p>

Transkripzioa

-Nik euki nittuen, igual hirurogei bat euki nittuen baten, e! Zeaittik neuken, bueno, kaixolak neuk eitten nittuan hau alanbre kuadrikulau hau hartu, honeik alanbre kuadrikulauek saltzen dienak zerien, ferreterixatan-ta. Hartu ta haretxekin ein kaixola dotore gaiñera ein, holan ta ein departamentuek euren zerakin, hau, zela da? Parrillakin ta hola eta ein nittuen ta ba lau hor ta beste bi neuken balkoien beste aldien ta sei. Oseake, lau kanarixa zerakin, kanarixuekin ta beste bi mistuekin neuken. Ba mistue bat kardantxillua, elegante bat, Bedoñan harrapaukua. Udabarrixen hartu eta astebete barru kanarixiekin taka ein dau honek. Ta bakitzu zela? Kanarixie nik kanarixua arra eukitten nauen kanarixakin ez, beste leku baten ta harek ez eban entzuten. Arra kantuen ta ibiltten zan. Baña kanarixak euezan ondora eruten nauenien, ekitzen zan han zeluen kantetan eta kanarixue entzuten auenien kantetan zera kanarixie, emie, jarten zan zerien, zeluen eta zela kardantxilluekin euen joan da segittuen. Bai, neuken baiña kardantxillo bat baiña holan, pelikulakua, e! Demasa, edarra!
-Bedoñarra?

-Bedoñarra, bai. Ta harekin atara nittun zerak, umiek. Ta gaiña zortzi. Bi kamada. Zortzi e! Lau ta lau ta danak hazi.

36. Txorien kantu ezberdinak

- **Erref:** ARR-010/008
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:14:18. **Bukatu:** 00:17:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

<p>Txoriei ematen zizkien jatekoak. Gasteizko txapelketa batera txoriak eraman eta irabazi zuenekoak. Kardantxilo eta Larra-txorien kantuen inguruko aipamena eta "mistua".</p>

Transkripzioa

-Nik ez dakit arrak zenbat urte eingo euen, erdixek inguru bai behintzet. Eta hareik gero jaten dabe, emuten notsen, bueno, normalki arrautza gorringue egosi ta ha izeten zan jan jan hori, normalki hazi arte. Baiña gero eitten notsen arrautza gorringuekin batera nahasketan notsen piper hautsa. Ta piper hautsek gorritu eitten zittuan. Ta mistuak eurak be, baiña zelako mistuek atara nittun. Ta lagunek esan eusten: "Hi, Gasteizera juan biher juau /bijau/ holako egunetan konkursue jak" eta bestie ta eruen gittuen Gasteizera ta lelengo premixua. Laukotien. Oseake, lau eruan eta lelengo premixua atara. Ta holakotxiek gintzen.

-Mistuak zer izeten dira, gehixau Kanarixo estilokuak edo gehixau Kardantxillo.

-Ez, Kardantxilluan estilokuek asko be gehixau. Bai.

-Kolare aldetik eta?

-Kolare aldetik eta bai, bai. Askoz be gehixau, bai.

-Ta kantuan zer eitxen dabe?

-Kantua? Ba kantue, klaro zuk eukitten bozu kanarixon bat ba segittuen Kanarixuana, baiña komeni izeten da mistuei zera erakustia, hau Kardantxillo kantua. Hori da baloretan dauena eurak, kardantxillo kantua. Ta orduan Kardantxilluen aldien euki ta Kanarixue beste leku baten, Kanarixue han ez deixela euki, entzun. Bestela segittuen ikesten dau ba!

-Ta polittaua da...

-Kardantxilluen zera, baña askoz be fuertiaue joten dau gaiñera ta berak. Bai, kantetan askoz be inddertsuaue da.

-Eta Larre-txorixana?

-Larra-txorixana elegantie, urten eusten kolorez ta zerak. Ta ha be dator, baiña harek kanarixuena ikesi euen ta kantetan euen.

-Orduan, kantua ikasten daue beti entzuten dabenana.

-Bai, entzuten dabenana, bai entzuten dabena gehixo.

-Gehixen bat zer eduki dozuz, Kardantxilluak, honek Larra-txorixak, Kanarixuak?

-Eta horretxek mistuok. Ta gero ba, horreik euko nittuen nik ba ez dait iguel zortzi bat urte inguru baten edo eukiko nittuen etxien. Ta gero ba kanpora ta joan biher izeten gauenien ba problematxue izeten zan. Joe, hareik zainketako ta baten bat biher ta bestie ta ia familixie be hazten ta kanpora gerua ta gehixau urtetan gauen ta. Ta beste aldetik andriek egun baten planteau eusten. Klaro hango alpistie ta karajuekin ba betik zikiñe. Ta hori ni beti garbiketan ibiltten nitzela, beti gaiñien. Ta andriek esaten eban:

“Bueno gizon, ointxe, ointxe zerbait pentsau biher dogu /biu/. Edo zeu edo txorixek hemendik kalera”. Ta neure artien: •Bueno bueno, andriekin geraketia hoba izango da txorixekin geraketie baiño!”, ta holaxen itxi nauen. Txorixon emon nittuan. Batai ta bestiai ta. Ta saldu be bai. Mistue ta ondo saldu nittuen gaiñera batzuk. Ta holaxen.
-Eta afiziñua orduan txikitxatik.
-Txiki-txikitatik. Bai, ikusten edo zainketan txorixek-eta. Eta gero zozuei ta bidegarruei ta honek be asko jarraiketan notsen. Bidegarrue be euki nauen zerien, etxien. Bidegarrue hartu afixan ta norberak hazi eta edarto kantetan eban.

37. 22 kardantxilo harrapatu

- **Erref:** ARR-010/009
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:17:38. **Bukatu:** 00:20:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Domu Santu egun batez Bedoñara joan eta 22 kardantxilo harrapatu zituenekoa.</p>

38. Txori harrapaketa sarearekin

- **Erref:** ARR-010/010
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:20:24. **Bukatu:** 00:22:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Sarez nola egiten den harrapaketa azaltzen du.

39. Karrantxaren inguruko azalpenak

- **Erref:** ARR-010/011
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:22:24. **Bukatu:** 00:23:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Karrantxa zer den azaltzen du.

40. Amuarrainetan errekan

- **Erref:** ARR-010/013
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:23:53. **Bukatu:** 00:27:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Gaztea zela erreka joan eta amuarrairak harrapatzen aritzen ziren igandeetan meza ondorenean. Errekaren kokalekua aipatzen du. Behin aingira bat harrapatu zutela kontatzen du.

41. Gerratik ihesi; bueltan Koruetara bizitzera

- **Erref:** ARR-197/002
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:01:13. **Bukatu:** 00:03:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerraren ondorioz alde egin eta urtebetez kanpoan izan ziren. Aita kartzelan, etxea apurtuta, ama seme-alabekin Koruetara joan zen bizitzera. Hogeita bat urtera arte egon zen bertan.

42. Bizikletaz hara eta hona

- **Erref:** ARR-197/003
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:03:28. **Bukatu:** 00:07:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Hamabi urte zituela egunero San Jose kolegiara joaten hasi zen, bizikletaz. Geroxeago, arreba mojetan hasi zen, eskolan. "Kukaratzak" esaten zieten mojei, beltzez jantzita zihoazen eta. Orduan bideak oso txarrak zeuden. Udazkenean gorpilak zulatzen zizkion sasiak sarri. Euritarako gabardina erosi zioten, bizikletaz ibiltzeko. Ekonomia gainean lehortzen zuen.

43. SIGMAra lanera

- **Erref:** ARR-197/005
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:09:33. **Bukatu:** 00:12:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Hogeita bat urterekin Arrasatera etorri zen bizitzera. Hogeita birekin soldadu joan zen Irunera. Don Jose Mariak (Arizmendiarrietak) kanpoko enpresa handiak ezagutzea gomendatu zion. Hala, SIGMA lantegian sartu zen.

44. Arrasate kooperatibako sortzaile

- **Erref:** ARR-197/006
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:12:06. **Bukatu:** 00:15:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Hogeita lau urte zituela, nobiari ama hil zitzaion eta anaia soldadu joan behar zenez, ezkondu egin ziren. Arrasate kooperatibako sortzaileetako bat izan zen.

45. Arrasate kooperatiban euskara eskolak

- **Erref:** ARR-197/007
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:15:22. **Bukatu:** 00:18:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Ikastolaren sorreran parte hartu zuen; diru-biltzaile aritu zen. Kooperatiban euskara klaseak ematen zituzten, 1970 inguruan. Aurrez alfabetatze saioak egin zituzten horretarako, Patxi Altunarekin. Beranduago, Xabier Mendigurenekin ere egin zituzten saioak.

46. AEDren sorrera

- **Erref:** ARR-197/008
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:18:31. **Bukatu:** 00:21:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

AED sortu zenean ere, hasieratik parte hartu zuen. Sortzaileetako batzuk aipatzen ditu. AEDko lokalaren ondoan taberna ireki zuten eta derrigorrez euskaraz egin behar zen bertan. Goiena ere AEDtik sortutakoa dela dio.

47. Amandrearen bertso zaharrak

- **Erref:** ARR-197/009
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:21:54. **Bukatu:** 00:25:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Amandreak bertso zaharrak zekizkien asko eta harekin ikasi zituen. Aretxabaletan gramola ipintzen zuten dantzarako. Lagunekin etxerako bidean bertsotan joaten zen.

48. Lehenengo bertsolaritza saioak Arizmendin

- **Erref:** ARR-197/010
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:25:37. **Bukatu:** 00:28:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

1974an, larunbat goizetan gazteak ikastolaren ingurura gerturarazteko ekintzak antolatu zituzten. Orduantxe sortu zuten bertso eskola eta ehunetik gora animatu ziren. Hiru irakasle ziren.

49. Bertso-eskolaren hasierak

- **Erref:** ARR-197/011
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:28:37. **Bukatu:** 00:31:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Abel Muniategik materiala prestatu zien bertso eskolarako. Amurizaren errima hiztegia erabiltzen zuten. Garai berean, Enbeitatarrek nagusiendako bertso eskola sortuta zuten.

50. Ikastoletan bertsolaritza irakasten nolatan hasi ziren

- **Erref:** ARR-197/012
- **Iraupena:** 0:04:19. **Hasi:** 00:31:45. **Bukatu:** 00:36:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Ikastolan ikasgai moduan bertsolaritza ematea proposatu zuen baina ez zuten onartu. Aldundiak finantziatuta, ikastolen federazioan liberatu egin zuten Mikel Mendizabal. Eskolarteko lehenengo bertsolari txapelketa zelakoa izan zen kontatzen du.

51. Arantzazu Loidi eta Iñaki Sarasua, oso bertsolari onak

- **Erref:** ARR-197/013
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:36:04. **Bukatu:** 00:39:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Arantzazu Loidik eskolarteko bertsolari txapelketan txapela irabazi zuen. Oso bertsolari ona izan zela dio, baita Iñaki Sarasua ere.

52. Hika inguruan

- **Erref:** ARR-197/019
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:45:14. **Bukatu:** 00:47:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Gurasoek hika egiten zieten. Senideen artean hika egin izan dute. Koruetan neska-mutil denek beraien artean hika egiten zuten umetatik.

53. Ikaskideek bazekiten eta euskaraz!

- **Erref:** ARR-197/020
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:47:22. **Bukatu:** 00:49:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Nagusiagoei eta gurasoei zuka egiten zieten. Estherrek Arrasaten eskolan erdaraz ikasi zuen. Urte asko geroago, bere ikaskideek euskaraz bazekitela konturatu zen.

54. Semeari hika, alabari zuka

- **Erref:** ARR-197/023
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:55:15. **Bukatu:** 00:58:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Euskalkia eta hika ez dira eskolan erakutsi. Patxiren semeak lagunekin hika egin izan du. Patxik semeari hika egin izan die eta Estherrek alabari eta ilobari zuka.

55. Hika egiteak gaztetasuna sentiarazten dit

- **Erref:** ARR-197/025
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:01:17. **Bukatu:** 01:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika berreskuratzea aberastasuna litzatekeela uste dute. Pantailekin harrapatuta ikusten ditu inguruko denak; zukarekin nahiko lan. Hikak gertutasuna eta gaztetasuna ematen diela dio, eta konfidantza.

56. Umetako garaiak Koruetan

- **Erref:** ARR-197/033
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 01:19:15. **Bukatu:** 01:23:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Beraiek ez beste denak ziren baserritarrek; haiek belarretan ibiltzen ziren eta beraiek arbolapean lasai. Ipurtargiak batzen ibiltzen ziren. Mutilak igeri egitera joaten ziren, neskak ez. Txoritan, amorrainetan, pilotan... ibiltzen ziren mutilak eta neskak tortoloxetan, harri-harrike, soka saltoka, txirikiletan... Mutikoekin sakalamangaka. Txopi jolasean aritzen ziren elkarrekin.

57. Dena berrerabiltzen zen

- **Erref:** ARR-197/043
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:39:38. **Bukatu:** 01:42:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Ingurugiroa » Zaborren kudeaketa

Laburpena:

Garai batean zaborrik sortu ere ez zuten egiten, erre egiten zituzten eta. Errekara jaurtitzen zuenik bazegoen. Egunkari papera gorde egiten zuten, paketeak egiteko edo komuneko paper moduan. Azukrearen papera ere gorde egiten zen, berrerabiltzeko.

58. Dendara norberak ontzia eraman behar

- **Erref:** ARR-197/044
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 01:42:34. **Bukatu:** 01:44:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Ingurugiroa » Zaborren kudeaketa

Laburpena:

Olio eta esnea ontzietara betetzen zizkieten. Lata handietatik hartuta, katiluetan erosten zituzten piperrak, tomateak... Esnea egosi egiten zen eta ihes egiten zuen sarri.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com